

## 7. atala BANDERIZOAK

Erdi Aroko lurretan ari ziren bueltaka Aritz eta Jone. lurretako kofradia bakoitza familia berdinen bueltan osatu zela ikasi zuten, hala, familia loturek indar handia izango zuten garai hartan.

- *Jone, tirabira handiak izaten ziren Erdi Aroan familia ez-berdinen artean?* – Aritzek gogoan zituen bere gurasoak joaten ziren “eskilarako bilera” aspergarri haiek auzokoekin gauzak adosteko.
- *Tirabirak?* – Bota zuen Jonek – *Izugarrizko borrokaldiak izan ziren. Familia batzuk besteak baino boteretsuagoak ziren eta orduan, familia ahulago horiek ahaltzuagoekin batzen ziren etsaien erasoetatik eta lapurretetatik babesteko. Horrela Bizkaia eta Gipuzkoako familiak bi familiaren inguruan batu ziren.*
- *Bi bando osatu zituzten beraz?*
- *Hori da Aritz! Ganboatarrak eta oinaztarrak* – Jarraitu zuen Jonek – *lurretarrak Zaldibar leinu edo familiarekin zeunden lotuta orduan eta hauek oinaztarrekin.*
- *Beraz iurretarrak ere oinaztarren aldean egongo ziren, ezta?* – Ondorioztatu zuen Aritzek.
- *Halaxe da Aritz!*
- *Ta orduan, horiek ere ganboatarren aurka borrokan...* - Aritz etsitzen hasita zegoen hainbeste borroka ta gerrarekin.
- *Bai. Garai hartan familia nagusietakoak dorretxeetan bizi ziren jauntxoak ziren eta gehiegikeria basatiak egiten zizkieten herritar xumeei* – Jone amorrus ari zen hitzegiten.
- *Herritarrak erasotzen zituzten?*

- *Batzuetan bai. Garai hartan lurretako lurretan zegoen Bernako dorreak adibidez arazo ugari sortu zituen, bidaiari eta merkatariei erasoz, lapurretak eginez... Azkenean beraien basakeriak gehiago jasan ezinda Bernako dorrea erre zuten durangarrek.*

Neba-arrebek pasioan jarraitu zuten, garai hartako dorretxe eta gazteluen artean, leinu edo familia haien kolore guztietako armari eta banderen artean.

- *Jone, gure familian ez dugu inoren aurka borroka egingo ados? Eta gainerako herritarrei lagunduko diegu!*
- *Gutziz ados Aritz! Sortuko dugu gure familiaren bandera hori aldarrikatzeko?*



### ARIKETA:

- Hartu folio bat eta marraztu ezazue zuen familiako bandera edo armaria